

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mendekotasunerako arretak 2.000 lanpostu sortuko ditu Nafarroan datozen urteotan

Hala adierazi du Laparra lehendakariordeak hitzaldi batean, eta sektore soziosanitarioaren etorkizuneko erronkak zerrendatu ditu bertan

Asteazkena, 2016.eko ekainak 22

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak kalkulatu duenez, mendekotasunerako arreta-sektoreak 2.000 lanpostu sortuko ditu Nafarroan datozen urteotan biztanleriaren zahartzea dela-eta, batez ere 85 urte baino gehiagoko pertsonen kopuruak gora egin duelako.



Mendekotasuna duen pertsona.

Hala adierazi du Laparra lehendakariordeak gaur, asteazkena, emakumeek laguntza sanitario eta sozialean duten laneratzearen gainean antolatutako nazioarteko kongresu batean. [Nafarroako ekonomia sozialeko enpresen elkarteak](#) (ANEL) antolatu du kongresu hori, Iruñean.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuen arabera, mendekotasunerako arreta-sektoreko enplegu-kopuru handiena arreta soziosanitarioko laguntzaileek osatzen dute. Gaur egun, kolektibo hori erakunde edo zentroetan lan egiten duten 3.085 pertsonak osatzen dute, eta beste 588k beren funtzioak etxetik etxeko arretan betetzen dute.

Haietatik, % 78 inguruk egiaztatutako kualifikazioa dute. Tasa hori % 100era igotzea da, Laparraren aburuz, sektore honek datozen urteotan aurre egin beharreko beste erronketako bat.

Gainera, gogora ekarri behar da alor horretan ere lan egiten dutela modu osagarrian, medikuntza, erizaintza, gizarte-langile, psikologia, fisioterapia, terapia okupazional eta beste esparru batzuetako zenbait profesionalak ere.

Profesionalizazioaren aldeko apustua eta beste erronka batzuk

Bestalde, Laparra lehendakariordeak ere agerian utzi du Nafarroako Gobernuaren asmoa dela gero eta pertsona gehiagok aukeratu ditzatela mendekotasunerako arreta profesionalizatutako zerbitzuak, eta ez zaintzaile lanak egiten dituzten senideentzako laguntzak.

Horrenbestez, ziurtatu duenez, enplegu gehiago sortuko da, eta mendekotasuna duten pertsonen jasotako arretaren profesionaltasuna

hobetuko da. Alde horretatik, zerbitzu profesionalen eskaera horri erantzungo dieten ekimen sozialeko enpresak eta kooperatibak sustatzeko nahia agertu du, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsoei lana emango dietenak edo gizarte-bazterkeria egoeran daudenei.

Laparra lehendakariordeak azaldutako etorkizuneko beste erronketako batzuk dira: langile horien lan-baldintzak hobetzea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean kotizatuko duten lanpostuak sortuz, eta langabezia-prestazioa jasotzeko eskubide izan dezatela; Etxez etxeko Arreta Zerbitzua malgutzea eta eraginkorragoa eta efizienteagoa izatea erabiltzaileen benetako beharrak betez; eta mendekotasunerako arreta-zerbitzuen finantzaketa egonkorreko nahiz iraunkorreko sistema bat bermatzea, errentaren araberako tarifa publikoekin eta, aldi berean, Estatuak finantzaketa handituko da; izan ere, Laparra lehendakariordeak esan duenez, gaur egun finantzaketa horrek gaur egun legeak ezarritako gutxienekoak baino ez ditu estaltzen, Nafarroarako "benetako kostutik oso urrun" geratuz.

Mendeko 13.615 pertsona daude Nafarroan

Hil honen hasieran, Nafarroak aitortutako 13.615 mendeko pertsona zituen. Haietatik, 5.130 pertsonak mendekotasun moderatua dute; 5.211k, larria eta 3.274k, mendekotasun handia.

Pertsona horien % 76k prestazio bat dute. Gehienek (6.319 pertsona), familia inguruko zainketarako laguntza ekonomikoa dute. Beste 3.661 pertsona adinekoen edo desgaitasuna duten pertsonen arretan espezializatutako zentroetan bizi dira, eta 406ri eguneko zentroetan ematen zaie arreta.

Gainera, 4.298 pertsonak baliatu zuten iaz Etxe etxeko Arreta Zerbitzua, nahiz eta zifra horren barnean ere aitortutako mendekotasunik ez duten adineko pertsonak sartu.